



Andere Jimeno - Oihane Murua
Aixerrota BHI, 15-16

AURKIBIDEA

Toti Mtnez de Lezea 2

Sarrera 2

Isilpean gordea

● Kokapena 3

● Gaia 3

● Argumentua 3

● Istorioa 4

● Pertsonaiak 5

● Egituraketa 6

● Baliabideak 7

● Iritzia 8

Bibliografia-webgrafia 10

Toti Martínez de Lezea

Toti Martínez de Lezea, 1949. urtean Gasteizen jaiotako euskal itzultzaile eta idazlea da. Ingeles, frantses eta alemanetik itzulpen ikasketak egin zituen. Telebistako gidoilaria eta aktorea ere bada, eta Kukubiltxo antzerki taldearen sortzaileetako bat. Gaur egun Larrabetzun bizi da.



1998. urtean bere lehen eleberria idatzi zuen, arrakasta handikoa izan zen eta *La calle de la Judería* du titulua. Harrezkero, garrantzi handiko eleberri asko idatzi ditu, genero historikoaren barruan denak. Hona hemen horietako batzuk: *La abadesa* (2002) *La comunera* (2003) eta *Otalorea* (2008).

Gazte literatura ere landu du, genero historiko horren barruan: *Antso Nagusia: Baskoien errege handia* (2003); *Nur eta irlandar gnomoa* (2008). Bere azken lana honako hau da, *Isilpean gordea*, 2015. urtean argitaratuta.

Sarrera

Isilpean Gordea, Toti Martínez de Lezeak idatzitako azken eleberria, 2015. urteko azaroan argitaratu zen. Obra horren bidez, idazleak, 1936ko gerra eta ondoren ezarritako erregimen frankista bizi izan zuen belaunaldi baten berri ematen digu. Istorioa Gasteizen kokatua dago. Amelia Zabaleta hil ondoren, haren testamentuaren irakurketa unean, familiak ezusteko bat jasotzen du. Ameliaren sendiak kontratatutako ikertzaile pribatu baten bidez, garai hartako egoera beldurgarria ezagutzeko aukera ematen du obrak.

Kokapena

Eleberriaren mamia Gasteizen kokatua dago. Hala ere, beste leku batzuk ere agertzen dira, besteak beste, Arabar Errioxa edo Burgos. Obraren kronologiari dagokionez, esan beharra dago bi garai desberdin ageri direla obran: alde batetik, une garaikide batean oinarritutakoa eta ikerlari pribatuaren ikerketa ardatz duena; eta, bestetik, Ameliaren kontaketa oinarritutakoa eta, horrenbestez, XX. mendearen hasieran kokatzen dena.

Pertsonaia nagusiak, Amelia Zabaleta eta Jon Martínez de Albeniz dira. Amelia hil ondoren egiten den testamentu irakurketan jakiten dute haren familiakoek Ameliak gaztetan inork ezagutzen ez zuen beste seme bat izan zuela. Hori dela eta Elvirak, Ameliaren alabak, detektibe pribatu bat kontratatzen du, Jon Martínez de Albeniz, anaia ezezaguna aurkitu zezan. Horretarako ikerlariak, Ameliaren iragana aztertzeari ekiten dio. Ikerketa horrek, ordea, zeharo aldatuko du Jonen bizitza.

Gaia

Amelia Zabaletaren familiakoen eta Jon Martínez de Albeniz ikertzaile pribatuaren bizitzak erabat aldatuko dira Ameliak gaztetan izandako seme baten berri izatean.

Argumentua

Amelia Zabaletaren heriotzaren ondoren, haren alaba Elvira eta urteetan bera zerbitzatzen ibilitako Felisa eta Salvador, notarioarengana joaten dira testamentuaren irakurketarako. Une horretan, ordea, espero ez zuten berri bat jasotzen dute: herentzia Miguelekin partekatu behar dute, alegia, Ameliak gaztetan izandako semearekin. Inork ez zeukan seme haren berririk; horregatik, Elvirak Jon Martínez de Albeniz izeneko detektibe pribatu bat kontratatzea erabakitzen du. Ikerketa horrek Jonen bizitza zeharo aldatzen du, izan ere, bere lanarekiko interesa berreskuratzeaz gain, Edurne ezagutu eta seko maitemintzen da. Ikerlariaren bizitza perspektiba erabat aldatzen da.

Istorioa

Amelia Zabaleta hiltzean, bere familia eta urteetan bera zerbitzatzen aritu diren Felisa eta Salvador testamentuaren irakurketara joan eta han jasotzen dute ustekabeko berria: herentziako dirua Miguel Aurrarekin partekatu behar dute, alegia, Ameliak gaztetan izandako seme batekin. Seme hori, ordea, ez du inork ezagutzen.

Horregatik, Elvirak, Ameliaren alabak, ikerlari pribatu bat kontratatzea erabakitzen du bere anaia Miguel aurkitu dezan eta azken gertaeren berri emateko. Detektibe pribatuak Jon du izena. Ikerlaria, lehenik eta behin, Ameliaren gertuko familia eta zerbitzariekin jartzen da kontaktuan ikerketari ekiteko eta horrela ezagutzen du Edurne, bere neskalagun bilakatzen dena. Orduantxe hasten da pentsatzen kasua argitu eta Miguel Aurra topatu ahal izateko biderik hoberena bere amaren iragana aztertzea dela.

Poliki-poliki, Jon haritik tiraka hasi eta Ameliaren gaztaroko gertakizunen berri izaten hasten da. Jonen iturrien arabera, Amelia gaztetan Pepe Aurra izeneko gizon batekin ezkondu zen modu zibilean, baina gerra hastean eta Araba altxatutakoen esku geratzean deuseztatu egiten dituzte ezkontza zibilak. Hala, Ameliaren lagun mina zen Concha Garciaranek Amelia ama ezkongabea zela salatu eta kartzelatu egin zuten. Kartzelan Ameliak etengabeko umiliazioak jasaten ditu, besteak beste, ilea moztu eta errizino olioia edanarazi ondoren herrian zehar ibiltzera behartzen zituzten emakumeak. Bestalde, Pepe Aurrak ere bere burua alde egitera behartua ikusten du, izan ere, hura maisua zen eta altxatutakoek horiek ere jazartzen zituzten. Hala, Ameliak bere semearen berri izateari uzten dio. Kartzelan hiru urte eman ondoren Amelia askatu egiten dute eta Burgoseko etxe batean neskame lanetan aritzera behartzen dute. Ondoren, Burgosen bertan ezagutzen duen gizon batek, Evaristo Rojasek, berarekin ezkontzera behartzen du. Ameliak Evaristoren tratu txarrak jasaten ditu urteetan, bortxatu ere egiten du behin baino gehiagotan, eta hala Elvira jaiotzen da; Amelia eta Evaristoren alaba.

Jonek eta Edurnek, Ameliak Arabar Errioxara egiten zituen bidaia batzuen berri izaten dute eta horrela Ameliaren Bastidako etxera joatea erabakitzen dute. Baina ez dute bidaia horien benetako xedea ezagutzea lortzen, egun batean etxeko mahai baten gainean argazkiak zituen

gutunazal bat topatzen duten arte. Argazki horien bidez ondorioztatzen dute Salvadorren benetako nortasuna Pepe Aurra dela. Ondoren Guardiara egiten duten bidaia batean argitzen dute gertatutakoa: Pepe Aurrak, herrira itzuli ondoren, lana bilatzeari ekin zionean Evaristok txofer lanak egiteko kontratatu zuen. Momentu horretan berriz elkartu ziren Pepe eta Amelia eta beraien semea topatzea lortu zuten.

Pertsonaiak

Isilpean gordea nobelako protagonista ikertzaile pribatua den Jon Martinez de Albeniz da, hau baita kontakizunaren ildoan eramatzen duena. Hala ere, badaude narrazioaren ulermenerako garrantzitsuak diren pertsonaiak; Amelia eta Fernanda Zabaleta, Pepe eta Miguel Aurra, Elvira eta Evaristo Rojas eta Edurne Oleta. Hauetariko batzuk azalduko ditugu.

- Jon Martinez de Albeniz

Jon, ia 40 urteko ikertzaile pribatua da eta honi Amelia Zabaletaren ezkutuko semea aurkitzea egokitzen zaio. Protagonista dibortziaturik dago eta ia ez du dirurik. Aipatutako ikerketan, txinera itzultzailea den Edurne Oleta ezagutzen du eta berarekin maitemintzen da. Ikertzaile pribatua ez da pertsonaia konplexu bezala ageri; hala ere, bere ahultasunak, grinak eta kezkak noizean behin adierazten ditu.

- Amelia Zabaleta

Amelia edo Meli, hilik dagoen eta bizitza oso zaila izan zuen emakumea da. Gaztetan, Pepe Aurrarekin maitemindu zen, ezkontza zibila egin eta seme bat izan zuten elkarrekin, Miguel Aurra delakoa. Hori guztia dela-eta Jesusen Bihotza ikastetxe izandako emakumeentzako kartzelan espetxeratu zuten beste hainbat emakumerekin batera. Bertan, hiru urtez egon zen eta ateratzean Burgosera bidali zuten familia dirudun batentzat zerbitzari gisa lan egiteko. Han, Evaristo Rojas ezagutu zuen, bere senarra izango zena eta berarekin alaba bat izango zuena. Meli, emakume isila zen eta gutxi batzuek soilik zuten bere seme Miguelen berri. Bere amak eta Fernanda ahizpak hura zaindu zuten Meli espetxean egon zen bitartean. Gainera, Melik ez zituen inoiz bere semea eta Pepe Aurra ahaztu.

- **Elvira Rojas**

Elvira, Amelia Zabaleta eta Evaristo Rojasen alaba da. Honek ez du inoiz amarekin harreman esturik izan, eta horregatik amari buruzko datu asko ez dakizki. Egia da Amelia ez zela oso hiztuna, baina bera ez zen inoiz berataz kezkatu. Orain, ama hilik egonda, herentzia bat jasoko du eta horretarako bere nebaordea den Miguel Aurra aurkitu behar du. Lan hori egiteko Jon kontratatzen du eta ikertzaileak, amari buruzko datu harrigarri asko kontatzen dizkio.

- **Miguel Aurra**

Miguel edo Mikel, Amelia Zabaletaren eta Pepe Aurraren semea da, istorioa kontatzen den momentuan 71 urte inguru izango dituena. Txikia zela, gurasoak kartzelan sartu zituzten eta bera amona eta izeba Fernandarekin geratu zen. Urte batzuen buruan, ama bila joan zitzaion eta inork ez zuen beraren berri gehiagorik izan.

- **Edurne Oleta**

Edurne, Ameliarentzat lan egiten zuen Felisaren biloba da. Hau, txinera itzultzailea da eta enpresa desberdinetarako lanak egiten ditu. Ezustean, bera baino hamar urte helduagoa den Jon ikertzaile pribatua ezagutzen du eta berarekin maitemintzen da.

Egituraketa

Isilpean gordea obra, pasarte bakar batean kontatuta dago beraz, ez dago ataletan banatuta. Lehenengo orrialdean esaten da noiz eta non kokatzen den istorioa, 2008ko otsailean zehazki. Hortik aurrera, lineala da Toti Martinez de Lezearen lan hau, kronologia zehatz batean gertatzen denaren kontaketa ordenatua baita. Hala eta guztiz ere, idazleak flashback-aren erabilera egiten du oroitzapen eta iraganeko kontaketen berri emateko. Azken horien artean, Amelia Zabaletak bere egunerokoan kontatzen dituen kezkek, sentimenduak, grinak, arazoak eta desioak daude. Horiek, gainerakoetatik desberdintzeko, letra etzanez idatzita daude.

Narrazioa denez, idazleak jarraitzen duen eskema sarrera, korapiloa eta amaiera da, 259 orrialdetan banatuta.

Baliabideak

Isilpean gordea lanaren narratzailea orojakilea da, eta 3. pertsonan idatzia dago. Horrela, honek pertsonaia guztien sentimenduak, akzioak, iragana, etorkizuna, ohiturak eta pentsamenduak dakizki.

*Halaxe hitzeman eta bizkor jaitsi zuten Resbaladeroko
aldapa, berriro beren aterpe goxora iristeko irrikaz. (109)*

Hala ere, aurreretik esan bezala, badira zatiak non Ameliak bere egunerokoan idazten duen. Pasarte horietan flashback-a erabiltzen da, irakurleak kontatzen duena gertuago sentitzeko. Horietan narratzailea pertsonaia garrantzitsu bat da eta lehenengo pertsonan hitz egiten du.

*Zer egingo ote nuke nik, bila etorriko balitzaizkit, jakingo
banu instant batzuk bakarrik gelditzen zaizkidala eta ez
ditudala gehiago ikusiko... (104)*

Esan beharra dago bi ahots (narratzaile orojakilea eta Amelia) horiez gain, beste bat dagoela, Pepe Aurrarena hain zuzen ere. Berak, poemen bidez Melirenganako sentimendu sakonak adierazten ditu.

*Bila nazazu,
txoriak bere habia nola.
Ametsei eutsi eta
ez ditzagun gal inola. (128)*

Poema hori Pepek Meliri idatzi zion biak espetxeratuak zirela. Horietan baliabide literario bat ikus daiteke, konparazioa: *txoriak bere habia nola*.

Estiloaren aldetik, Ladronek, ez du hizkuntzaren erabilera teknikoa edo kultua egiten, estandarra baizik. Eta euskarazko bertsioan, obra itzulpena baita, hizkuntza estandar landuan moldatu du itzultzaileak, euskara batua, bai gertakizunak kontatzeko eta bai deskribapenak egiteko ere.

*Senarrarena baino erretratu dezente txikiagoa zen, eta
markoa bera ere, xumea eta laua: batere antzik ez harenak
zituen urre koloreko apaingarri nabarrarekin. (67)*

Horrela, irakurlearentzat ulertzen erraza den istorioa idatziz, harengana hurbiltzen da. Gainera, idazterakoan, ahozko ezaugarriak ere sartu ditu: errepikapenak, elkarrizketak, menderakuntza gutxiko esaldiak, irainak (*emagaldua, sorgina, putrea...*) eta atsotitzak (*Gizonak dauka bere bikotekidearen adina*). Horiek guztiak erabiliz, idazleak irakurlea txunditzea bilatzen du.

Narrazioan elkarrizketa ugari daude, estilo zuzenaren arrastoa uzten dutenak.

– *Tira, segun nola konpontzen ziren...*

– *Izebak dioenez, ez zuten logela berean lo egiten...*

– *Atera al dezaket argazki bat? –galdetu zuen. (67)*

Baliabide literarioei dagokienez, zenbait metafora eta konparazio daude:

Berak uste ez bezala, etxeko ganbara ez zen filmetako haiek bezalakoa, iluna, hautsez betea. (66)

Ez dut sentitzen odoloz zainetan, gatzatu egin zait, nonbait. (82)

...erraldoiek ezkutatutako altxorrak azaleratu balira bezala (110)

Iritzia

Isilpean gordea nobelak, misterioz beteriko istorio bat kontatzen digu. Lanaren edukiaren aldetik, kontatzen den azaleko istorioa oso interesgarria da, baina benetan hunkitzen duena sakonean dagoena da. Azken horrek, gerra zibilean zehar eta gerra ostean, frankismo garaian biztanle askok pairatutako sufrimendua eta gehiegikeriak kontatzen ditu. Horrelakoa da Amelia Zabaletaren kasua juiziorik gabe kartzelatu, iraindua, umiliatua, tratu txarrek beldurtu eta gutxietsitakoa. Dena den, emakumeak aurrera egiten du, gauza guztien gainetik eta bere semea eta maitalearekin elkartzea lortzen du. Hori edonorentzat baliagarria den filosofia da eta horixe bera da idazleak plazaratu nahi duen ideia.

Gaur eguneko gazteek ez dute garai haietan gertatzen ziren izugarrikerien berri eta horiek salatzea ere bada Toti M. de Lezearen helburuetako bat. *Isilpean gordea* tituluari erreparatzean adibidez, bi zentzuetan ari dela

dirudi. Alde batetik, Miguel isilpean izandako semeaz ari da. Bestetik, gaur eguneko zaharrek isilpean gordetzen dituzte Francoren garaian bizi izandakoak eta askok horretaz hitz egitea saihesten dute. Horixe bera da, izenburuari eman ahal zaion bigarren zentzua.

Toti Martinez de Lezeak erabiltzen duen hizkuntza ulergarria, adierazkorra eta garbia da. Hau da, euskaraz irakurtzeko erreparoa duten askok lexiko arazorik ez izateko modukoa da darabilen hizkuntza. Hau, irakurlearengana hurbiltzeko eta irakurketa pisutsua ez izateko egiten du.

Obra oso egokia da hamabost urtetik gorako pertsonentzat, esan bezala erraza delako irakurtzen. Hala ere, ez da egun batean irakurtzeko modukoa, informazio asko eta pertsona askoren izenak ematen dira eta. Horregatik, beharrezkoa da irakurketari denbora ematea, askoz ere ulergarriagoa izan dadin.

Idazleak, oso erakargarria egiten du nobela; izan ere, bi narratzaile daude aldi berean istorioaren berri bi ikuspuntu desberdinetatik ematen dutenak. Alde batetik, Meli dago eta hark ematen duen informazioa oso baliagarria da, irakurleak emakumea nola sentitzen zen jakiteko. Bestetik, narratzaile orojakilea, zeinek Jonen orainaldiko istorioa kontatzen duen. Bi ahots horiek tartekatu egiten direnez, irakurtzen duenak badaki Meli espetxean egon zela Jon ikertzaile pribatuak jakin baino lehen.

Obrako pasarte erakargarri bat aipatzekotan, istorioaren amaiera izango litzateke. Horretan, Jonek egia guztia jakiten du, Pepe Aurrak edo Salvadorrek kontatzen diolako. Azken finean, zati hori da irakurleak espero duen zatia, hainbeste elkarrizketa eta istorio korapilatsuren ondoren.

Santoñako espetxetik irten, eta Gasteizera joan zen Meliren eta semearen bila; han jakin zuen Meli ere espetxeratu egin zutela, eta gurasoen etxetik haurra jaso ondoren galdu zuen haren arrastoa. Hala, familiarengana itzuli zen, Ozaetara, eta etxekoan alboan bizimodua berregiten saiatu zen; baina alferrik izan zen: Meli eta haurra beste ezer eta inor ez zuen buruan... (251)

Beraz, esan daiteke, obra guztiz gomendagarria dela eta benetan merezi duela irakurtzea.

Bibliografia eta webgrafia

- *Isilpean gordea*, Toti Martinez de Lezea. Erein.
- https://eu.wikipedia.org/wiki/Toti_Martinez_de_Lezea
- <http://atalak.eus/ikagela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/index.html>
- <http://www.atalak.eus/ikagela/nola-egin/il-gida/index.html>
- http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp
- <http://www.eitb.eus/eu/albisteak/bideoak/osoa/3667092/isilpean-gordea-toti-m-de-lezearen-nobela-gerra-osteko-gasteizen/>